



LEHEN HEZKUNTZAKO 3. MAILAKO IKASLEENTZAT ARIKETAK

1. Lehen pausoa, proposatutako bi espezieetatik bat hautatzea izango da, bidali dizuegun eranskina erabili beharko duzue horretarako.

2. ZER DAKIGU?

- Urgulleko sugandilak, sugeen ahaideak dira. Ba al dakizu zein taldetakoak diren animalia hauek?
- Ba al dakizu nola jaiotzen diren sugandilak?
- Aipatu ezagutzen dituzun lau narrasti.
- Intsektuak munduko animaliarik ugarienak dira. Ziur pila bat ezagutzen dituzula zuk ere...
 - o Hegan egiten duen intsekturik?
 - o Berde kolorea duen batonbat? Gorria? Horia?
 - o Familia handietan bizi dena?

3. ZER EGIN?: collage koloretsua

Paper edo kartulina batean, sortu hautatutako espeziearen *collage* bat. Ez ahaztu aurreko lanketan ikasi ditugun xehetasunak (nola jaiotzen diren, koloreak, etab.) *Collage*-a ongi lantzeko, gogoan izan espeziea bizi den ingurunea.

4. Bidali Dbus-era argazki bat!

Geuri ere gustatzen zaizkigu collage-ak, noski baietz. Bidaliguze denon artean sortutako *collage* bat, edo sortu dituzuenen argazki bat! Hartara ongi jakingo dugu zein izan den hautatu duzuen espeziea gure autobusa izendatzeko. Ongi pasa!

ERANSKINA: espezieen deskribapena

***Podarcis hispanica*, Urgulleko sugandila**



Sugandila iberiarra (*Podarcis hispanica*) penintsulako espezie endemikoa da eta Euskal Autonomia Erkidegoko ia guztian aurki dezakegu, Gipuzkoako kostaldean ohikoa izanik.

Baina Santa Klara irlan eta Urgull mendiko populazioen kasuan, sugandila honek kostaldeko gainerako populazioetatik aparte eboluzionatu du milaka urtetan zehar. Tamaina handiagoak izateraino hazi dira, gorputzean pigmentazio ilunagoa dute, eta ezkata batzuk larruan.

Horregatik guztiatik, Urgulleko sugandila berezitat jotzen da, eta balio ekologiko handia du.

***Rosalia alpina*, Rosalia Kakalardoa**

Rosalia alpina (Coleoptera, Cerambycidae) legeak babestuta dago bere urritasunagatik, eta Europako intsekturik ederrenetakoa da. Gorputz luzexka du, kolore gris urdinxkako iletxo motzez estalia, eta orban beltzekin..

Burutik bi antena luze ateratzen zaizkie; arren antenak emeenak baino luzeagoak dira.



Rosalia alpina emeek eroritako zuhaitz eta adarren egur hilaren gainean jartzen dituzte arrautzak. Larbek bizpahiru urte igarotzen dituzte elikatzen, enborretan galeriak zulatzen.

Pago egurra nahiago dute, baina ez diote muzin egiten sahats, ezki, lizar eta gaztainondoen egurrari, ez eta pinuen egurrari ere. Helduaroak bi aste ere ez du irauten, eta denbora horretan bikotea bilatu, estaldu, eta arrautzak jartzen dituzte.